AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

2023-05-12 / 775 ZENBAKIA / 19. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

Herri omenaldia Ansari

1979ko Santakrutzetan Triple A erakundeak Joxe Ramon Ansa 17 urteko gaztea erail zuen. Aurreko larunbatean familiarrek eta adiskideek herri omenaldia egin zioten / 9

Euskaldunaren mendeurrena

Aurreko asteburuan eta honetan egiten ari dira mendeurreneko ekitaldi nagusiak / 8

Amiantoak langileen artean eragindako sarraski isila, Salaberria eta Uzkudunen eskutik / 6-7

Andoainen Gure Zirkuaz gozatzeko azken txanpa, asteburu honetan / 14

Ramon Iriarte bake epailea. KRONIKA

"Oso erraza eta azkarra da abizenak euskarazko grafiara aldatzeko prozesua"

RAMON IRIARTE ANDOAINGO BAKE EPAILEA

'Apelliduak abizentzeko' eman beharreko pausoetan eta aurkeztu beharreko agirietan, nork bere herriko bake epaitegira joan behar du

Erredakzioa BURUNTZALDEA

"Oso erraza eta azkarra" da abizenak euskarazko grafiara aldatzeko prozedura. Hala azaldu du Ramon Iriarte, Andoaingo bake epaileak. Izan ere, abizena euskaratu nahi duenak bere herriko bake epaitegira joan behar du horretarako, eta momentuan egingo dute prozedura, betiere, irizpide batzuen arabera. Aurkeztu beharreko agiriak edota onartuta dauden aldaketak eman ditu aditzera bake epaileak; eta gomendioa luzatu du, aldaketa «gaztetan» egiteko, gerora gauzak erraztuko dituelako.

Martxan jarraitzen du 'Apelliduak abizendu' kanpainak...

Bai, eta, aurten, dagoeneko, lau dira abizena euskaraz jartzeko eskaera egin dutenak Andoainen, aurreneko lauhilekoan. Hasieran izan zen kolpea, abizenak euskaratzeko aukera zabaldu zenean, 2000 urtean. 30 bat eskaera izango genituen orduan. Gerora ere hurbildu dira, tarteka. Kontuan hartu behar da, seme-alabak adin txikikoak badira, gurasoek abizena aldatuz gero, haiei ere aldatzen zaiela, eta, beraz, espediente bakarrean egiten dela aldaketa guztia. Gerora, ez dute beraiek egin behar berriro.

Nolakoa da abizena euskaratzeko prozesua?

Oso erraza da. Interesa duenak bake epaitegira agertu behar du, bakoitzak bere herriko bulegora; eta bost minutuko kontua izaten da. Honako hauek ekarri behar dira nortasun agiriaren kopia, errolda agiria, erakusteko herrian erroldatuta zaudela, eta jaiotza agiria edota aldatu behar duzun beste edozein agiri, ezkontza agiria adibidez. Horrela, aldaketa bideratzen da agiri guztietara. Bake epaitegian begiratzen dugu eskatutako aldaketa onartuta dagoen, eta momentuan egiten dugu.

Zein aldaketa daude onartuta?

Euskaltzaindiak esaten duenaren arabera jokatzen dugu. Muga batzuk daude, eta ezin dugu onartu edozein aldaketa. Dena den, Euskaltzaindiaren irizpideak aldatuz doaz, egokitzeko. Adibide xelebreena Mujika abizenarena izango da. Múgica, Euskaltzaindiak Muxika gisa itzultzen du, 'jota' beharrean 'ixa' erabilita. Orain onartuta dago 'jota'rekin, baina, hasieran, ez. Eta jendeak esaten zigun 'jota'rekin eta 'ka'rekin nahi zuela, ez 'ixa'rekin, baina Euskaltzaindiak ez zuen onartzen.

Gainera, jatorri euskalduna duten abizenak euskaratu daitezke, ez jatorri erdalduna dutenak. Rodríguez abizena, esaterako, ezin da euskaratu eta 'u' hori kendu. Eta erderazko abizenen itzulpena ere ezin da egin: Huertas abizena daukanari, ezin diogu Baratzak jarri, ez dauka zentzurik. Jatorri euskalduna duten abizenetan, hizkiak aldatu eta euskarazko grafiara ekartzea da Apelliduak abizendu egitasmoaren helburua.

Zein senideri eragiten dio, norberak abizena aldatzeak?

Pertsona baten abizena aldatzean, seme-alabei aldatuko zaie baita ere, baina adin txikikoak badira soilik. Adin nagusikoen kasuan, beraiek eskatu beharko dute aldaketa. Gainerako senideei ez die eragiten aldaketak. Esaterako, zuk abizena aldatuz gero, zure anaiari ez zaio aldatuko, berak etorri beharko du.

Bakoitzak eskatu behar du berea aldatzea.

Abizena aldatu ondoren, gainerako dokumentazioan ere egin behar duzu aldaketa?

Bai, hori norberak egin behar du gero. Nortasun agiria berritzera zoazenean, eraman behar duzu agiri bat, adierazten duena abizena euskaratu duzula, eta aurrerantzean beste modu honetara idatziko dela. Agiri hori bake epaitegian bertan emango diegu. Eta, kasu batzuetan, bertan jaiotakoak ez izan arren, aukera baldin badaukagu jaiotza agiria ikusteko, eman diezaiokegu.

"AURTEN, DAGOENEKO, LAU DIRA ABIZENA EUSKARAZ JARTZEKO ESKAERA EGIN DUTENAK"

Baina norberak eskatu behar du aldaketa gero, nortasun agiria berritu behar duzun hurrengo aldian. Adibidez, aurrekoan etorri zitzaidan gizon bat bake epaitegira, abizena euskaratzera. Etxekoek esaten zioten, bera bakarrik falta zela abizena euskaratzeko, NANean gaztelaniaz ikusi ziotelako. Begiratu genuen, eta esan nion dagoeneko euskaratua zeukala abizena, 2001 urtean edo. Kontua da, aldaketa egin ondoren, ez zuela NANean ere aldatu.

Komeni da ahalik eta azkarren egitea abizena euskarazko grafiara aldatzeko tramitea?

Gaztetan egitea gomendatzen dut. Printzipioz, ez litzateke arazorik egon beharko gerora ere; baina demagun etxebizitza erosi duzula, eta eskrituretan azaltzen dela euskaratu gabeko abizena. Gerora abizena aldatuta, arazoak sor daitezke, zu ote zaren eskrituretan ageri dena, eta agiri gehiago aurkeztu beharko dituzu agian, pertsona bera dela egiaztatzeko. Gaztetan egiten baduzu, aldiz, toki guztietan agertuko dira abizenak euskaratuta.

Abizena ez ezik, izena ere aldatu daiteke, ezta?

Bai, izenarekin ere berdin. Gainera, izenekin bi kasu ezberdin daude: izena euskaratzea, edo aldatzea. Jesus Maria bazara, euskaratuta izango zara Josu Mirena. Baina Josu bakarrik jarri nahi baduzu, orduan aldaketa bat egitea da. Alegia, Mirena kentzea aldaketa da. Baina biak egin daitezke, eta erraza da. Kasu horretan ere, Euskaltzaindiaren arabera jokatzen dugu, ezin da edozein aldaketa onartu. Baina egokituz doaz irizpide horiek ere: gauza bizia da hizkuntza, ez da zerbait finkoa, kaxa batean sartuta dagoena. Lehen onartzen ez ziren izen pila bat, onartuta daude orain.

Doakoak dira tramite horiek?

Bai. Epaitegietako prozedurak doakoak dira, orain arte. Beraz, abizena euskaratu nahi dutenek, prozesua zaila edo garestia denik ezin dute esan; aitzakia hori, behintzat, ezin dute erabili.

"EPAITEGIAN ABIZENA EUSKARATZEKO PROZEDURA DOAKOA DA"



Euskaltzaindiaren webgunean aurkitu daitezke, abizenak euskaratzeko onartuta dauden aukerak. EUSKALTZAINDIA

Milaka 'apellidu abizentzeko' aukera, udalen ekimenari esker

Azkeneko 15 urteotan, mila herritar inguruk euskaratu dute beraien izena edo abizena Buruntzaldean, eta hori sustatzen jarraitzen dute eskualdeko sei udalek, elkarrekin, 'Apelliduak abizendu' ekimenaren baitan

Erredakzioa BURUNTZALDEA

Badira urte batzuk, "Apelliduak abizendu" ekimena martxan jarri zutela Buruntzaldean. Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek, euskararen arloan elkarrekin aurrera eramaten dituzten ekimenetako bat da, tokian tokiko bake epaitegiekin lankidetzan. 2000 urtetik dago abizenak zuzenean euskaldunduta apelliduak abizentzera animatu direnak: Echeverría, Aguirre, Lecuona edo Erquicia izateari utzi, eta Etxeberria, Agirre, Lekuona edo Erkizia izatera pasa direnak, besteak beste.

Izan ere, hala nahi duenak oso erraz egin dezake aldaketa, nork bere herriko bake epaitegian. Hiru agiri eraman beharko dira: errolda-agiria, udaletxean eskatu behar dena; jaiotagiri ofiziala, jaioterriko bake epaitegian bertan eskuratu beharrekoa; eta NANaren fotokopia. Ezkonduek edota seme-alabak dituztenek, Familia Liburua ere eraman beharko dute. Horiekin Bake Epaitegira bertaratu, eta han bertan egingo dute abizenaren aldaketa, oso tramite sinplea baita egin beharrekoa. Gainera, edozein zalantza izanez gero, Bake Epaitegian jaso daitezke argibide guztiak.

Euskaltzaindiak onartutako aldaketak dira egin daitezkeenak, eta horiek ikusteko aukera dago bere webgunean bertan (euskaltzaindia.eus), 'Hizkuntza-¬baliabideak' arloko 'Onomastika' atalean, deiturei eskainitako txokoan. Milaka abizen ageri di¬ra zerrendan, euskaldunduta.

59 izen eta abizen euskaratuta Buruntzaldean, 2022an

Milaka abizen dira euskaldundu daitezkeenak, eta izenak euskarara ekartzeko aukera ere badago Bake Epaitegietan. Horrela, ehunka izan dira izena edo abizena euskaratu dutenak, Buruntzaldean: azkeneko 15 urteotan, mila inguru; eta urte horietako batzuetan, ehundik gora.

Oso esanguratsuak dira datuak, kontutan hartuta urte asko pasa direla abizenak zuzenean euskalduntzeko aukera zabaldu zenetik. Andoainen, esaterako, 210 izan dira izena edo abizena euskaldundu dutenak, 2010etik 2022ra bitartean. Astigarragan, berriz, 101 lagunek egin dute aldaketa epealdi berean, eta 171 izan dira Urnietan. Antzeko kopurua izan da Usurbilen ere, 164 lagunek ekarri baitute izena edo abizena euskarara (2011tik 2022ra). Eta Lasarte-Orian, 129 lagunek baliatu dute aukera hori (2012tik 2022ra bitartean).

Gainera, oraindik ere martxa polita darama ekimenak. Joan den urteko kopurua ikusi besterik ez dago horretarako: 59 herritarrek egin zuten izen edo abizen aldaketa, euskaratzeko. Horietatik 16 izan ziren Andoainen, eta 13 Hernanin.

Urtearen herena gainditu be¬rri dugu, baina aurten ere ari di¬ra eskaera ugari jasotzen eta aldaketak egiten, eskualdeko Bake Epaitegietan.

Bakarne Urreaga eta Garazi Redondo Zilegi Eskolako kideak. AIURRI

“Emozio eta sentsazio atseginak euskaraz bizitzeko tokia da Zilegi Astea”

BAKARNE URREAGA ZILEGI ESKOLAKO KIDEA

Zilegi Astea izango da Urnietan maiatzaren 15etik 19ra bitarte. Euskararen erabilera esparru ez formaletara eramateko asmoz, makina bat hitzaldi izango dira

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Ondo baino hobeto bukatu nahi du Urnietako AEK euskaltegiak 2022-2023 ikasturtea. Horretarako, Zilegi Astea antolatu du maiatzaren 15a eta 19a bitartean. Hitzaldiak, mahai-inguruak, tailerrak...

Askotariko gaiak izango dira hizpide, guztiak euskara abiapuntu. Zilegi Eskolako kide da Bakarne Urreaga.

Uda ate-joka daukagu eta zuek modu berezi batean borobildu nahi izan duzue ikasturtea, Zilegi Astearekin.

Hernanialdeko AEKn antolatu dugu, hau da, Urnietan, Hernanin nahiz Astigarragan. Zilegi Eskola proiektuari ikusgarritasuna eman nahi diogu. Orain bi hamarkada pasa sortu zen Hernanialdean, baina, Urnietan, hasi berri samarrak gara. Horrez gain, euskaraz aritzeko espazioak sortu nahi ditugu herrian eta interesen araberako gaiak landu nahi ditugu proiektuaren bidez. Herritar guztiei zuzendutako eskaintza da, euskaldun osoentzat, baita euskalduntze-prozesuan murgilduta daudenentzat ere. Oso onuragarria da horiek guztiak gune berean elkartzea.

Esparru ez formaletan euskararen erabilera sustatzeko xedez sortu zen orain hiru ikasturte Urnietan Zilegi Eskola. Martxa polita hartu al du?

Horretan ari gara. Lehenengo urtean, saio bat edo beste egin genuen, proba moduan. Joan den ikasturtean, berriz, hitzordu bat antolatzen genuen hileko. Aurten, azken dinamika horri eutsi diogu eta Zilegi Astea batu diogu orain artekoari. Udalarekin lankidetzan egiten dugun egitasmoa da. Horrela, diru-laguntzak areagotu ahala, eskaintza zabaltzeko aukerak ere biderkatu egin zaizkigu. Oso eskertuta gaude.

Herriko kultur eta aisialdiaren eskaintza aberastea du xede Zilegi Eskolak, baita, eremu ez formaletan euskararen erabilerak gorantz egitea ere. Gainera, gai bereziak eskaintzen ditu proiektuak (ametsen interpretazioa, etxearen ordainketarako gakoak...) eta doan. Zenbait hitzordu oso praktikoak dira, eta beste hainbatek hausnarketa maila konplexuagoa eskatzen dute. Dena dela, ez da aurretiazko jakintzarik behar, eta euskara maila guztiei begirako eskaintza da. Besteak beste, euskalduntze-prozesuan murgilduta dagoen gai-emaile bat izango dugu gurean Zilegi Astean. Finean, erabilera da hizkuntzaren muina, eta horretan jarri nahi dugu arreta.

Zilegi Asteari erreparatuz gero, goiz, eguerdi nahiz iluntzeetara zabaldu duzue zuen hitzaldi-sorta.

Hori da, eta herriko askotariko espaziotan, gainera: AEKn bertan, Saroben, Santa Krutz elkartean, Lekaion, kiroldegian... Herriko hainbat lekutara iritsi nahi dugu.

"ZILEGI ESKOLARI IKUSGARRITASUNA EMAN NAHI DIOGU EKIMENAREN BIDEZ"

Herriari edo AEKri lotutako jendea izango da, gehienbat, gai-emaile hitzorduetan.

Gai-emaileak herritarrak izan daitezen ahalegintzen gara beti. Ordea, gai jakinen bat jorratzeko urnietarrik topatzen ez badugu, inguruko herrietako jendeari luzatzen diogu gonbita. Hala nola, pertsona ezaguna da Jokin Pedreño tiktoker oreretarra eta euskaraz jorratzen ditu edukiak. “Sare sozialak euskaraz” hitzaldia emango du berak.

Saioei dagokionez, orain arte egin ez ditugun saioak izango ditugu: esaterako, “Ametsen interpretazioa”, “Sare sozialak euskaraz”, “Irudi bidezko sormena eta ilustrazioa”... Beste batzuk, jendearen interesez eta eskakizunez, errepikatu egingo ditugu. Adibidez, “Toxikorik gabeko bizitza” hitzaldiaren lehen zatia egin zen; orain, bigarrena egingo da, udari begirakoa.

Hitzordu dinamikoak bezain parte-hartzaileak dira.

Proiektuaren leloak dioenez, jakintza hartzea eta ematea da Zilegi Astearen helburua. Euskaraz, intereseko gaiak landuz, une atsegin bat bizitzea da asmoa, finean.

Modu batera edo bestera ikusgarritasuna ematen al dio AEKri herrian?

Gaur egun, horixe da dugun erronkarik handiena, herritarrengana gerturatzea.

Horrenbestez, zergatik da garrantzitsua Zilegi Eskola proiektua egotea Urnietan?

Eskaintza bat da Zilegi Astea, bestelako gaiak jorratzeko aukera. Emozio eta sentsazio atseginak bizitzeko tokia da, gai batzuen gaineko jakintza ematen du, dohainik, herrian bertan eta euskaraz. Modu berean, herritarrek harremanak estutzeko txokoa da, komunikazio-ohituretan eragiteaz gainera.

Zer egin behar du Zilegi Eskolako ekintzetara gerturatu nahi duenak?

Telefonora (663 043 314) hots egin edo zilegieskola@aek.eus helbide elektronikora idatzi. Eskuzabalik hartuko dugu jendea, beraz, animatu daitezela!

"EUSKARAZ ARITZEKO ESPAZIO GEHIAGO SORTU NAHI DITUGU HERRIARI BEGIRA"

San Isidro eguna

Astelehenean baserritarren eguna ospatuko da. Ohi bezala, meza eta hamaiketakoa izango dira. Aurreko igandean, bestalde, Azkorteko bigarren erromeria antolatu zuten lasartearrek. Adin guztietako bisitariak hurbildu ziren

Erredakzioa URNIETA

Urtero bezala, maiatzaren 15ean ospatuko da baserritarren San Isidro eguna, Urnietan. Horrela, meza izango da goizeko 11:00etan hasita eta, jarraian, hamaiketakoa egingo da Lekaion. Aurtengoan, ez da bertsolaririk izango. Tradizio handiko ekitaldiak ospatzen dira maiatzean, Urnietan. Aurreko igandean, esaterako, lasartearrek Azkorteko ermitan Santa Krutz eguneko bigarren ospakizuna antolatu zuten. Meza, musika eta herri kirol saioarekin osatu zen goiza. Adin guztietako bisitariak hurbildu ziren Azkortera.

Urnietako EAJ-PNVko hautes-zerrendaren aurkezpena, Lekaion. AIURRI

Udal hauteskundeei begira dago Eusko Alderdi Jeltzalea

Hautagaien zerrenda aurkeztu zuten igandean, datozen lau urteetarako programa azaltzearekin batera

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Maiatza ekitearekin batera Udal hauteskundeen azken txanpan murgildu dira Urnietako alkatetzara aurkeztuko diren alderdi politikoak. Gauzak horrela, ekitaldia egin zuen Eusko Alderdi Jeltzaleak joan den igande eguerdian, Lekaio kultur etxean. Batetik, maiatzaren 28ari begira aurkeztuko dute hautes-zerrendaren berri eman zuten jendaurrean; bestetik, laurteko programaren nondik norakoak azaldu zituzten ikus-entzunezko bidez nahiz mikrofono aurrean. Jorge Segurado orain arteko alkateak zein aurrera begirako alderdiaren zerrendaburuak hartu zuen hitza, baita Joseba Egibar Gipuzko Buru Batzarreko presidenteak ere.

"Aurrera, batera!" lelopean, udal eta foru hauteskundeei begirako atzera kontuan sartu da Urnietako Eusko Alderdi Jeltzalea, herriko gainerako alderdi politikoak bezalaxe. Seguradoren hitzetan, bere lana "zintzotasunez, apaltasunez, ausardiaz eta determinazioz" egiten jarraitzeko konpromisoa erakutsi nahi du datorren laurtekoan ere. Atzera begira jarri zen, lehenik, hautagaia: "EAJn erakutsi dugu, beste behin, zailtasunei aurre egiteko eta egoera zailak kudeatzeko gaitasuna dugula".

Etorkizunera begira jarrita

Ondoren, etorkizunari erreparatuta, programaren puntu garrantzitsuenak azaldu zituen aurkezpenean, martxan dauden proiektuak amaitzeko asmoa azaltzeaz gain: "Etorkizuneko Urnieta eraiki nahi dugu guztiok elkarrekin, herri adeitsua, irisgarria, gertukoa, inklusiboa, euskalduna, solidarioa, bizia, jasangarria, landatarra, parte-hartzailea eta modernoa izan dadin". Zerrendaburuak adierazi lez, arreta berezia jarri nahi die alderdiak herritarren premiei: elkarteen etxea, adinekoen egoitza, iraupen luzeko zaintza jaso behar duten pertsonei begirako pisu sozialak, babes ofizialeko etxeak, kalitatezko enplegua, auzo guztiei zuzendutako mugikortasuna eta irisgarritasuna, ingurumen-jasangarritasuna, tokiko merkataritza... Horrenbestez, hori guztia gauzatu ahal izateko, talde lana garrantzitsua dela nabarmendu zuen Seguradok hitzorduan: “Gure jardunaren ezaugarri garrantzitsua da”.

"ZAILTASUNEI AURRE EGITEKO ETA EGOERA ZAILAK KUDEATZEKO GAITASUNA DUGU"

JORGE SEGURADO, HAUTAGAIA

"TALDE-LANA GURE JARDUNAREN EZAUGARRI GARRANTZITSUA DA"

JORGE SEGURADO, HAUTAGAIA

Salaberria eta Uzkudun, Xoxokan, Justizia Auzitegi Nagusiko sententzia mahai gainean dutela. AIURRI

Amiantoaren itzal luzea

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak Xabier Salaberria Iturritza urnietarrari lan gaixotasunak jota bizi dela eta kalte-ordaina merezi duela aitortu dio berriki. Epai horretara iristeko, prozesu judizial luze bati ekin behar izan dio Salaberriak

Xabier Lasa ANDOAIN

Finanzauto Serviciosen, Oikinako hegaztien hiltegian eta Neumaticos Uria enpresan kamioien mekaniko modura lanean aritu zen, harik eta, 2013an, jubilatu zen arte.

2019an, biriketako adenokarzinoma diagnostikatu zioten, eta Osalanek, berak kudeatzen duen amiantoaren eraginpean egon daitezkeen langileen zerrendan sartu zuen. Horretarako osatu zuen txostenean, adierazi zuen ezaguna dela balazten eta enbrageen estalkia amiantoarekin egiten zela, eta, beraz, ibilgailuak konpontzeko tailerretako mekanikariek, besteak beste, balaztak konpontzen zituztela, eta amianto-zuntzen eraginpean egon zitezkeela, esposizio-probabilitate ertainhandiarekin. Txostenaz baliatuta, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak ezintasun iraunkor absolutua aitortu zion Salaberriari, arnastutako amiantoak eragindako gaixotasun profesionalagatik.

Salaberriak demanda jarri zien hiru lantegiei, Donostiako Lan Arloko Epaitegiak bere aldeko epaia eman zuen, eta enpresak diru-ordaina ematera zigortu zituen. Gauzak horrela, Neumaticos Uriak helegitea jarri zuen, eta egunotan, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak Donostiako epaitegiak emana zuen epaia berretsi egin du, lehen esan bezala.

Epaiak, enpresarioen erantzukizuna nabarmendu du prebentzio-planik ez ezartzeko orduan, izan ere, legez, 1978tik aurrera, lan-gaixotasun gisa definitzen baitira amiantoak eragindako asbestosia, kartzinoma, bronkio edo biriketako gaixotasun mesotelioma pleurala eta peritoneala.

Epaia eskuetan, azken urtetan osasunarekin dauzkan gorabeherak eta bizitu duen prozesu judiziala hartu ditu hizpide Xabier Salaberriak, lan-gaixotasunen arloan langileen eskubideen alde buru belarri dabilen Jesus Uzkudun hernaniarra ondoan duela.

Zer moduz zabiltza osasunez, Xabier?

Xabier Salaberria: 2019ko irailean, pneumonia jasan nuenez, geroztik, nire gorputzak ez dit erantzuten lehen bezala, aldatua daukat immunitate-sistema. Arnasketa ez da lehengoa, eta pausoan ibiltzeko ordekan ez daukat arazorik, baina aldapak urrunetik ikusi behar ditut. Kimioko eta erradioterapiako saio ugari jaso nituen diagnostikoa egin zidatenean, eta, azken aldian, hiru hilabetetik behin ,onkologia eta erradiologiako errebisioak pasa behar izaten ditut. Medikuek esperantzak ematen dizkidate, eta horri heltzen diot etsia ez hartzeko.

Etsia ez, kontrara, zure lan ibilbideko hiru lantegiei demanda jarri zenien.

X. S.: Justizia eske! Izan ere, 45 urtetan, mekaniko gisa jardun nuen ezertarako babesik gabe, izan ere, ez nik eta ezta lankideek inondik ere ez genuen jakin zer sustantzia kaltegarriekin aritzen ginen. Orain, azken urtetan hasi naiz jabetzen zer nolako zikinkeriak arnasten genituen. Nahiz eta legeak horretara derrigortu, osasun-neurri prebentiborik gabe jardun izan dut nik eta beste milaka langileek, eta biktimatzat hartu behar gaituzte alde horretatik.

Epaiak bi arrazoiengatik poztu nau: biktima gisako aitormena ekarri didalako, eta, gainera, ni bezala dauden askorentzat ere baliagarri izan daitekelako etorkizunean. Asko joan dira mundu honetatik inongo aitormenik gabe, baina bada garaia aurre egiteko injustizia horri.

Oso eskertuta nago ASVIAMIE elkarteak, eta, batik bat, Jesusek

"LANGILE ASKO ERAMAN DU MINBIZIAK INONGO AITORMENIK GABE"

eskaini didan laguntzagatik. Indarrak dauzkadan artean, beraiekin segitzeko asmoa daukat, gure antzeko egoeran daudenen aldeko eskubideen defentsan.

Enpresak jarritako helegitean, besteak beste, argudiatzen da zuk lanean jardun zenuen bitartean ez zenuela bajarik hartu.

X. S.: Ni ez naiz sekula bajak hartzekoa izan, lan eta lan. Dena den, garbi dago hauts zikinak arnastu, eta urtetara adierazten dela beren eragin kantzerigenoa. Jesusek hobeto adieraz dezake datu hori, daukan eskarmentuagatik, baina errealitateak horixe esaten digu; jubilazioa hartzeko puntu-puntuan edo jubilatu ostean azaleratzen dela minbizia, gehien-gehienetan.

Jesus Uzkudun: Lantokietan arnasten diren substantzia kantzerigenoek nahiz eta berehala heriotza ez ekarri, lan-istripuek baino heriotza gehiago eragiten dituzte gerora. Europako instituzioen eguneroko ofizialean aitortu zaigu orain bi aste, nola urtean 90.370 heriotza eragiten dituen amiantoak, minbiziaren bidez. Halako gerrarik munduan ezagutzen al dugu, biktima denak bando batekoak izanik gainera?

Salaberria 1994a arte zigarro erretzailea ere bazela aipatzen da helegitean.

J. U.: Orain arte bizi izan ditugun epaiketetan, nahiko argudio errepikaria izaten da hori, eta baita zurrut zalea izatearena ere, enpresen abokatuek aurkezten dutena. Alde horretatik, azpimarratzekoa da epailearen erantzuna: Espainiako Auzitegi Gorenaren iraganeko epaiak oinarri hartuta, adierazten du "amiantoarekiko esposizio profesional luzeak, bakarrik eta berez, gaixotasun profesional bat sor" dezakeela, eta hori "kausa esklusibo gisa nahikoa dela erreklamatutako kalteak ez ezik heriotza ere sortzeko", langilea erretzailea izan ala ez. Oso pozgarritzat hartu behar dugu Salaberriaren kasuan eman duten epai horrek erabiltzen dituen argudioak, batez ere etorkizunean erreferentzia gisa har baitaitezke etorriko diren epaiketetan.

ASVIAMIE amiantoaren biktimen euskal elkartetik zabaldu duzuen oharraren bidez, langileak animatzen dituzue lantegiei erantzukizunak eskatzera, prebentziozko praxi txarragatik edo eragindako osasun-kalteengatik.

Pankartaren ezkerraldean, Salaberria eta Uzkudun elkarrekin ageri dira. Donostiako Auzitegi Nagusiaren atean daude. UZKUDUN

Urtetan makina bat kasu ezagutu dugu, eta asko ikasi dugu. Gaixotasunak ezkutuan geratzen badira, zein enpresak hartuko ditu serio prebentzio-planak, substantzia kaltegarriekin lotuta? Lege hausleek zigorrik ez badute jasotzen, "zertarako xahutu dirua?", aterako dute ondorioa. Denok ere, neu lehenbizikoa, isunen mehatxupean betetzen ditugu legeak neurri batean; gaizki aparkatzeagatik edo gehiegizko abailan joateagatik jasotzen dugun zartakoak hurrengoan txintxoago jokatuko dugula, seguru!

Azken batean, eragindako kalteagatik ordaindu beharreko kalte-ordainak prebentzio-motibazio bihurtuko dira.

Halaber, Osalanen, amiantoaren eraginpean egon daitezkeen langileen zerrendan sartzeko eskatzea ere gomendatzen duzue.

X. S.: Izan langilea, izan pentsioduna, amiantoarekin kontaktua eduki duela uste badu, edo susmatu behintzat, egin dezala eskaera, zuzenean edo gurekin harremanetan jarrita (telf. 691833456). Mediku-azterketa egingo diote, eta baiezkoa frogatzen bada, zerrendan sartuko dute, eta hortik aurrera, osasunzaintza berezia egingo diote. Ia ezinbestekoa da zerrenda horretan egotea, lan-gaixotasuna aitor zaitzaten. Hil ostean, zaila aitormena!

Zu ere, Jesus, amiantoaren biktima zara.

J. U.: Orbegozoko langilea izan nintzen urtetan, eta 2013an sartu nintzen Osalango zerrendan. Orain bi urte, berriz, biriketako asbestosia diagnostikatu zidaten; zerrenda horretan nengoelako antzeman zidaten gaitza. Gorputzean mantso garatzen den gaixotasun kantzerigenoa da nirea, eta txartel ugari dauzkat minbizia jasateko noizbait. Arnas-indarra galtzen ez dudan bitartean, hor segiko dut…

Enpresak kalte-ordainetara zigortuz, horiek ixtea eta langileak kaleratzea bultzatzen ari zaretela adituko zenuten behin baino gehiagotan.

J. U.: "Egurrean aritzen" garela eta horrek onik ez dakarkiela langileei eta antzekok maiz leporatu dizkigute. Nik erantzuten diet lankide eta adiskide ugari ditugula lurpean amaitu dutenak minbiziengatik, beren bizi guztian lanean *jotasu* aritu eta erretiro duin bat lortu bezain pronto, eta horretarako ez dagoela eskubiderik. Gai honetan egin ditzazkegun lorpenak, gizartearen onurarako eta gizakien ongizaterako dira, zalantzarik gabe.

Maiz ere entzungo zenuten, adinean aurrera bizi-legea dela gaixotzea…

J. U.: Horretara mentalizatu nahi gaitu ideologia neoliberalak, sinets dezagun geure bizitzako bizimodu eta habituen eraginez gaixotzen garela, eta, hortaz, geure arazo pertsonala dela, pribatua. Beti azpimarratzen zaigu zenbat erretzen dugun, zenbat alkohol edaten dugun, ze bizitza sedentarioa egiten dugun… Gurea da beti errua. Sekula ez zaigu galdetzen zein baldintzetan egiten dugun lan, zer irensten dugun bertan, edo sekula ez da auzitan jartzen noraino ez diren betetzen lan-osasun arloko legeak.

Kontzientzia zabaltzen doa lan gaixotasunen gainean.

J. U.: Hori ez dago ukatzerik, baina epelak entzun izan behar ditut 25 urtetako ibilbidean. Konparazio batera, Osalaneko kontseilaria nintzenean, alarmista deitzen zidaten, eta zera gaineratzen: "Zergatik osasun zaintza berezia horientzat, ez dute eta erremediorik!". Alajaina! Gai honetan azala ez zait gogortu, eta oraindik ere sutan jartzen nau ikusteak zenbateko ezjakintasuna eta utzikeria dagoen. Makina bat adibide jar ditzaket, egunero topatzen ditudanak. Medikuetatik hasita, eta jarraituta erakunde publikoekin Osalanekin, Osakidetzarekin, enpresetako zuzendaritzekin, epaileekin… Sindikatuek ere badaukate zertan sakondua injustiziaz beteriko gai honetan.

Kontziente izan behar gara sistema neoliberalak bultzatzen duen produkzio-dinamika eroak ez duela soilik klima aldaketa eragiten, erleak desagerrarazten… Baita gizakia ere deshumanizatzen eta suntsitzen duela.

Lantokian lan-istripuz hildakoen errealitatearekin kontzientzia ari gara hartzen poliki-poliki, baina lan-gaixotasunei dagokionez, epel gabiltza oraindik. Europatik ematen diguten datu ikaragarriak, mugiarazi beharko gintuzke gehiago: lanean hiltzen diren pertsonetatik, % 52 minbiziak hiltzen ditu; alegia, langile izanik nahiz jubilatu eta gero ezintasun iraunkor absolutua lortu ostean.

"GUREA DA BETI ERRUA. SEKULA EZ ZAIGU GALDETZEN ZEIN BALDINTZETAN EGITEN DUGUN LAN"

"LAN-GAIXOTASUNEI DAGOKIONEZ, EZ GABILTZA OSO KONTZIENTZIATURIK ORAINDIK"

"PRESIO SOZIALAREKIN TINKO JARRAITZEA BESTE ERREMEDIORIK EZ ZAIGU GERATZEN"

Madrilgo Kongresuan amiantoaren biktimak konpentsatzeko funts bat sortzea erabaki zuten, iazko uztailean.

J. U.: Lege onuragarria da, printzipioz. Esate batera, pertsona bati lan gaixotasuna aitortu zaion arren, bere kasuan, prebentzioplanak ez betetzeagatik zigortutako enpresa itxita balego, funts horretatik jasoko luke kalteordaina pertsona horrek. Edo ,demagun, senarren lantokiko arropak garbitzean kutsatu den emakumea, bada hori ere kontuan hartuko luke funts horrek.

Kontua da politikoek agindu zigutela legea indarrean jarriko zutela, baina atzeratzen ari da gauza. Arazoen artean, estatutuan, fiskalitatearen arloan desberdintasun handiak egotea; EAEko hiru diputazioek, onartuta daukate funts horretatik jasotzen duenari ez kentzea ezer. Baina beste lurraldeetan igual erdia kentzen dute.

Ez harritu politikoak murrizketaren batekin agertzea laster, legea zikiratzea alegia, eta lehen poza zena orain frustrazio bilakatzea. Hortaz, presio sozialarekin tinko jarraitzea beste erremediorik ez zaigu geratzen.

Euskaldunaren historian esanguratsuak izan diren herrikideak, Udal ordezkari eta futbol arloko erakundeetako ordezkariekin batera. Argazkiak eta bideo-sorta ikusgai webgunean. AIURRI

Mendeurreneko ekitaldi gorena

Euskalduna futbol taldea osatzen duten eragile guztiek ospakizun handia egin zuten Basteron, joan den larunbatean. Klubaren ehun urteko historian makina bat gertakizun gogoratu zituzten, eta baita horiek posible egin dituzten pertsonak ere

Xabier Lasa ANDOAIN

Presidenteak, entrenatzaileak, jokalariak, zaletuak... Esker ona adierazteko aitormen ekitaldia izan zen, Jone Larrañagak eta Marta Elvirak aurkeztu zuten ospakizun ekitaldi bizi-bizian barrena. Aitor Mendiluzek eman zion hasiera, bertso sorta kantatuz; Imanol Iribarrenen piano hotsa izan zuen bidelagun horretarako. Ondoren, aurkezleek hainbat futbol eragileekin solasaldi txikiak egin zituzten: Salba Parada egungo presidentea, Alex Uranga Realeko ordezkaria, Jose Mari Soto Gipuzkoako federazioko ordezkaria, Mari Jose Telleria Aldundiko Kultura eta Kirol diputatua eta Maider Lainez Andoaingo Alkatea. Ubitarten mendeurrena goraipatzeko eskultura zutitu duen Joxe Ramon Amondarain artistak eta hitza hartzeko parada eduki zuten.

Mendean barrena Etxeberrietako zelaian zaildu ziren hainbat futbolari handi (Izagirre, Unanue, Langara, Arrieta, Etxebeste, Aizpurua, Etxarri, Arberas, Mendiluze, Artola anaiak, Irulegi, Marigil...) gogoan hartu zituzten, eta klubaren historian lan eta lan jardundako bi pertsonei, Bixente Huizi (Jon Huizi semea igo zen oholtzara) eta Juan Luis Anton *Bixkai*-ri oroigarri bana eman zizkien.

Aipamen berezia jaso zuten, aldi berean, jokalari, entrenatzaile eta presidente izandako Joxe Ramon Bengoetxeak, zuzendaritza urte gehien (20 urte) egin dituen Ramon Iriartek, gizonezkoetan partida gehien (315) jokatu duen Ander Lopezek, emakumezkoetan norgehiagoka gehien (87) jokatu duen Leire Mosquerok, minuturik gehien jokatu duen Jose Inazio Garmendiak, areto futbolean partida gehien jokatu duen Maikel Fernandezek, gizonezkoetan denboraldi gehien (14) entrenatu dituen Ramon Ruizek, emakumezkoetan denboraldi gehien (5) entrenatu dituen Maite Urruzunok, gizonezkoetan denboraldi gehien entrenatu dituen Ramon Ruizek, areto futbolean entrenatzaile gisa luzeen aritutako Joxe Mari Uzkudunek, eta, azkenik, Emilio Lekuona eta Matilde Alvarez bazkide beteranoek. Noiz edo noiz, presidente izandakoei ere (Ramon Gantzarainekin hasi eta Salba Parada bitarte) merezimenduzko aitormena egin zitzaien, ekitaldian. Ospakizun handiari amaiera emateko, gonbidatuak eta aparteko aitormena jaso zutenak oholtzara igo ziren, eta denek, elkarrekin, ereserki berria abestu zuten, bere egile diren Aitor Mendiluze, Imanol Iribarren eta Mikel Morenorekin batera.

Bengoetxea eta Amondarain, eskulturaren aurrean. AIURRI

"Alineazioa", Amondarainen eskutik

Artelanak azalpenik behar ez duela defendatu zuen egileak, aurkezpen ekitaldian. Izatekotan, galderak sorrarazi behar dizkio artelanari begira dagoenari. Baina beti da interesgarria artista entzutea, artelana hobeto ulertze aldera. Baloiaren diametroko hutsuneak ageri dira xafla irmoan, eta, haiekin batera, zangoak. "Alineazioa" du izena eskulturak. Taldeko alineazioa izan daiteke, baina baita astroena ere. Baloia ilargiarekin parekatu daitekeen bezala, jokalaria astroarekin lotzeko joera iraunkorra izan da. Eta izarren konstelazio horretan, garaiaren arabera, Pele, Socrates, Maradona, Messi, Garcia, Putellas edo Sarriegi lirateke astro horiek. Eta, Andoainen, urrutira joan gabe, Euskaldunatik mundu zabalean dozenaka gol sartu zituen Isidro Langara futbol jokalaria.

Joxe Ramon Amondarainen eskulturaren irekiera-ekitaldia egin zuten, Basteroko ekitaldi nagusiaren aurretik. Joxe Ramon Bengoetxeak erakutsi zuen jendaurrean. Bakana baita bere ibilbidea. Klubeko jokalari, entrenatzaie eta lehendakari izan baita.

Joxe Ramon Ansari gorazarre

Upategi baserriko gaztea Azkonobieta baserritik gertu, Xoxokarako bidean erail zuen Triple A talde ultraeskuindarrak 1979an, eta larunbatean familiarrek eta adiskideek 44 lore utzi zituzten oroitarriaren altzoan

Xabier Lasa ANDOAIN

Joan diren urte guzti horietan ez dutela ahaztu adierazi nahi izan zuten era horretan. Hunkigarria izan zen ekitaldia. Gora Kaletxiki txarangak hartu zuen musikaren ardura, eta Unai Barrutia Urkiko dantzariak eta biek, Agurraren dantzarekin eman zioten hasiera ekitaldiari. Ansaren familiakoek eta adiskideen eskutik lore eskaintza heldu zen ondoren; musikariek, bien bitartean, Joxe Mari Oiartzabalek Andoaingo biktimak eta beren eskubideak gogoan hartuta sortua duen "Justizia" interpretatu zuten.

Sorozabal eta Mendiluze bertsolariek bina bertso abestu zituzten, eta, adiskideen izenean, Joxe Martin Arregik hitza hartu zuen. Arregik, Joxe Ramon Ansak kuadrillako lagunei eman ohi zizkien lezioak, naturarekin eta baserri munduarekin lotutakoak, hartu zituen gogoan.

Santa Krutz Martxarekin eman zioten amaiera ekitaldiari, Gora Kaletxikiko musikariek eta Santa Krutz jaietako hiru danborradetako (Zumeatarra, Peña Santa Krutz eta Herri danborrada) ordezkarien eskutik.

Joxe Ramon Ansaren anai Imanolek, Ansa Etxeberria familiaren izenean, eskerrik beroenak eman zizkien omenaldi ekitaldira bertaratu ziren guztiei.

Urtetan atzera joanda, gogoan hartu behar da Joxe Ramon Ansa, Buruntzaldean 70eko eta 80ko hamarkadetan jardun zuten ultraeskuindarren biktimetako bat izan zela. Hona erail zituzten beste zazpi lagun: David Salvador, Tomas Alba, Felipe Sagarna, Migel Maria Arbelaitz, Luis Maria Elizondo, Joakin Antimasbere eta Jabier Ansa. Ultraeskuindar horiek estatu aparatuen konplizitatearekin mugitu zirela salatu zuten orduan, bai Andoaingo Udalak eta baita AP eta UCD ez beste alderdi guztiek.

Etxekoak, lore-eskaintzan. Bideoa eta argazkiak ikusgai aiurri.eus webgunean. AIURRI

Lagunen idatzia

Joxe Ramon Ansaren adiskideak ordezkatuz, Joxe Martin Arregik irakurri zuen idatzia:

"Lorerik gabeko maiatza. Maiatz zikiratua. Zer arraioetarako nahi dugu bizitzarik gabeko Maiatza?" zioen poetak.

Halako zerbait sentitu nuen neuk ere 1979ko maiatz hartan, amorru bizian.

Honuntza nentorrela landagune inguruko irrati saio bat entzunez gogora etorri zaizkit Upategira sagarrak biltzera etortzen ginen une haiek.

Guretzat erdi jolasak, egia esan. Ikasturte garaiak ziren eta Joxe Ramonek ikastolako liburuetan agertzen ez ziren zenbait ikasgai irakatsi zizkigun: zeuden sagar motak, errezil sagarrak, santio sagarrak, udare sagarrak, piku sagarrak, sagar gaziak, sagar gezak…

Beste batean, berriz, hor etorri ginen laupabost kalekume belarretan laguntzera. Pazientzia handiz irakatsi zigun metak nola egiten ziren. Huraxe izan zen gure bizitzako lehen belarmeta.

Gauzak zer diren, irratia entzun eta gero zorte handiko mutilak izan ginela pentsatu dut. Izan ere, ordurako Jakoba moduko jakintsua bait genuen alboan.

Ez dugu lorerik gabeko maitz gehiago nahi!

Baina ez dugu Joxe Ramonenganako oroimena ahaztu nahi eta hemen uzten dugu gure loremeta xumea. Gogoan daukagun bitartean, bizirik jarraituko baitu gure artean

Joxe Ramon, gogoan zaitugu!!"

Ekitaldi hunkigarria

Etxekoek jarritako monolitoan egin zuten lore-eskaintza. AIURRI

Hiru elkarte danborjoleetako kideek Santa Krutz martxa jo zuten. AIURRI

Sorozabal eta Mendiluze bertsotan aritu ziren. AIURRI

andoaINDARRA euskaraz

Mateo-Tatxen eta Urruzola-Setien. MATEO

Iturzaeta pala txapelketa herrikoia abiatu da

Aurreko asteburuan abiatu zen binakako txapelketa, gizonezkoen mailan. Emakumezkoen txapelketa laster abiatuko da. Giro polita sortzen da ikusleen eta jokalarien artean, Sorabillako pilotalekuan

Amas I-II eta Yerai-Arregi. MATEO

Guti-Aranburu eta Andoni-Arruti. MATEO

Etxeberria-Lete eta Sanchez-Landa I. MATEO

Ezeiza-Usandizaga eta BelaunTzaran-Berrobi. MATEO

Iraola-Jauregi eta Peñalvo-Chanca. MATEO

Imanol-Joseba eta Martin-Mujika. MATEO

Loidi II-I eta Arabaolaza I-II. MATEO

Belaunzaran-Salinas eta Seko-Canflanca. MATEO

Ipintza-Gaztañaga eta Landa II-Perez. MATEO

Iztu-Jimenez eta Gonzalo-Palas. MATEO

"Aurtengoan, marka guztiak gainditu ditugu"

MATEO PONCE ITURZAETA TXAPELKETAKO ANTOLATZAILEA

Iturzaeta Pala Txapelketa urteko kirol ekitaldi garrantzitsuenetakoa bilakatu da, azken urteetan. Erakarpen indar handia du palisten artean, eta baita ikusleen artean ere

Miker Arberas ANDOAIN

Nondik atera zen Iturzaeta pala txapelketa antolatzearen ideia?

Garai hartan, 2011n, 25 urte bete ziren Joxe Mari Iturzaeta palista handiak debutatu zuela, eta, beraz, auzoan mugitzen hasi ginen. Nolabaiteko talde bat osatu genuen eta omenaldi moduko bat egitea otu zitzaigun.

Sorabillako Iturzaeta pala txapelketa asko aldatu al da lehen ediziotik?

Lehen urtean, omenaldi jendetsua egin zen, Iturzaetaren pala-kide ohiekin. Horrez gain, herriari begirako zerbait antolatzea pentsatu genuen, eta hortik sortu zen Sorabillako pala-txapelketa.

Egia da, hasiera batean, zalantzati ginela Sorabillako frontoian txapelketa antolatzearekin, frontoiaren egoera eta berezitasuna medio, nahiz eta niretzat xarma handiko pilotalekua izan. Hortaz, herritarren parte-hartzea zalantzan jarri genuen. Azkenean, aurreikuspen guztiak hautsita, harrera bikaina izan zuen.

Urtetik urtera handitzen doan txapelketa al da?

Lehen urtean, 20 bikote inguruk parte hartu zuten. Beste urte batean, parte hartze kopurua gainditu genuen, 44 bikoterekin, nahiz eta aipatu beharra dagoen, emakumezkoen parte-hartzea apalagoa izan ohi dela. Ondoren, Covid-a medio, urte pare batean, txapelketa antolatzeari utzi genion, bideragarritasun eza medio; neurri batean, eskertu genuen, deskantsantzeko. Hala ere, pandemia ostean, txapelketari berrekin genion, herrian, baita familian ere, eskatzen ari zirelako. Aurtengoan, marka guztiak gainditu ditugu gizonezkoen 45 bikoterekin.

Txapelketa antolatzea lan handia den arren, familiaren, lagunen eta pilota eskolako kideen laguntza ere jasotzen duzu, ezta?

Bai, hori da. Kanpotik ikusita, txapelketa nik bakarrik antolatzen dudala dirudi, baina atzetik jende gehiago ari da lanean; WhatsAppeko talde bat sortu genuen laguntzarako eta txapelketa modu eramangarriago batean kudeatzeko. Esaterako, pilotako eskolako kideak, Lierni emaztea, Juango anaia, Koldo eta Maider seme-alabak, eta haien lagunak, tartean dira, beste batzuen artean.

Mateo Ponce, Sorabillako frontoian. AIURRI

"BIKOTE GUZTIEK NIRE MIRESMENA DUTE, DENA EMATEN BAITUTE PILOTALEKUAN"

Nola aurreikusten duzu aurtengo txapelketa?

Hamabigarren edizioa izanik, Iturzaeta txapelketa urteroko klasiko bat bilakatu da, beraz, askok izena eman baino lehen, dezente entrenatzen dute. Horrez gain, urtero belaunaldi berriak sartzen ari dira txapelketan, gogo handiarekin jokatzen dutenak. Era berean, helduagoak direnak txapelketatik erretiratzen hasiak dira, nahiz eta batzuek jarraitzen duten. Hori guztiaz haratago, oso pozgarria da Sorabillako frontoiak herriari ematen dion bizitasuna ikustea, urte osoan gainera.

Orokorrean, maila handitzen ari da, urtetik urtera, baina, guztien artean, bizpahiru bikote gailentzen direla esango nuke; besteak beste, Loiditarrak, Eskuderotarrak edota, azken urtetan, Ponce eta Alkorta lagunak. Hala ere, gertutik jarraitzen dieten bikoteak ere indartsu datoz, hala nola Usandizaga-Setien, Andoni-Arruti eta Belauntzaran-Berrobi, beste batzuen artean. Esanak esan, bikote guztiek merito handia edukitzeaz gain, nire miresmena dute, guztia ematen baitute pilotalekuan, baita harmailetan ere.

ESKUBALOIA

Leizaran Ernio Allurralden, larunbatean 19:00tan

Euskal Ligarako igoera fasean, maila ikusgarria erakusten ari da Andoaingo Leizaran Ernio Inmobiliaria senior mailako taldea. Ibilbidea ikusgarria da:
1. Ordizia 30-32 Leizaran / 2. Leizaran 37-25 Urdaibai / 3. Iparcom Gasteiz 22-29 Leizaran / 4. Leizaran-Erromo: maiatzak 13, larunbata. 19:00, Allurralde.

PILOTA

Andoain, Herriarteko txapelketan

Larunbatean, 19:00tan ekingo diote andoaindarrek txapelketari. Idiazabalen aurka jokatuko dute, eta etxetik kanpo jokatuko dute lehen jardunaldia, ondoren, Andoainen. Kadeteetan, Mikel Gaztañaga eta Aimar Beroz ariko dira. Jubeniletan, Julen Gaztañaga eta Beñat Salbador. Senior mailan Eneko Beloki eta Imanol Usandizaga.

www.aiurri.eus

AIURRI BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA • Kirol Albisteak

FUTBOLA

Euskaldunaren ekitaldi-sorta, larunbatean

Aurreko asteburuko ekitaldien ostean, ekimen sorta berria dakar Euskaldunak. Asteburu honetan "Urdinak berde gainean. 100 urte" izeneko dokumentalaren estreinaldia egingo dute, Basteron. Eta, ondoren, emakumezkoen arteko partida jokatuko da Ubitarten. Jarraian, herri bazkaria. Hauxe da, beraz, egitaraua:

- 11.30 "Urdinak berde gainean. 100 urte" dokumentala Basteroko Auditorioan.
- 12.30 Emakumezko beteranoen futbol partida Ubitarten.
- 14.30 EEU! bazkari herrikoia. Aita Larramendi ikastolako frontoi estalian. Musikarekin girotuko dute bazkalostea.

AIURRI

Pala-txapelketa Kontzejupean

PALA Giro polita sortu da Poxta Zaharrek antolatutako txapelketan. Datozen partidak: Maiatzak 16, asteartea: elgarrestarrak vs iturbetarrak; Sergio/Borja vs Ibai/Igor; Ainhoa/Alba vs Edorta/Aitor. Maiatzak 18, osteguna: Beñat/Alain vs Erlaitz/Beñat. Maiatzak 19, ostirala: niñotarrak vs Dani/Endika.

AIURRIXXX

Yeray Martin, igoeraren gidari

FUTBOLA Yerai Martin andoaindarrak lorpen ikusgarriak eskuratu ditu azken urteetan, entrenatzaile gisa; oraingoan, emakumezkoen Eibar taldea igoera fasera eraman du, asteburuan, Cordoba taldeari irabazita. Andoaindarra pozik agertu da: "Partida seriotasunez jokatuta, lehen zatian, bi gol sartzea lortu dugu; bigarren zatian, berriz, ez dugu gauza handirik egin, baina, une oro, egoera kontrolpean eduki dugu. Play Off-ean egotea ahalbidetzen digun ezinbesteko garaipena lortu dugu. Ez da batere erraza izan, beraz, oraingoan, garaipenaz gozatzea tokatzen da".

ERREMONTEA

Goikoetxea eta Barrenetxea, gailurrean

Sagardoaren txapelketako beste jardunaldi bat jokatu zen Galarreta frontoian. Lehen partidan, Urrizak eta Martirenak garaipen estua eskuratu zuten, Ezkurra-Zubiri bikotearen aurka (2-1). Ezinbesteko garaipena lortu zuten txapelketan bizirauten jarraitzeko. Bigarren partidan, berriz, urnietarrak eta hernaniarrak beren nagusitasuna erakutsi zuten; izan ere, jada, finalerdietarako sailkatu dira. Goikoetxeak eta Barrenetxeak Aldabe-Azpiroz bikotearen aurka jokatu zuten (2-1), baina Petritegi sagardotegiaren ordezkarien ezin izan zuten irabazi, nahiz eta garaipenaren atarian geratu.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA

POSTONTZIA

AITA LARRAMENDI IKASTOLAKO ARTEZKARITZA ANDOAIN

Aita Larramendi ikastolaren pareko pantaila akustikoak

Azken egun hauetan jakinarazi zaigunez, Gipuzkoako Foru Aldundia N-I errepidean pantaila akustikoak jartzeko lanekin hasi da, udan amaitzeko asmoz.

Ikastolaren eraikin ondoan zeuden lasto-fardoak kendu dituzte eta, ikasturtea amaitu bitartean, aspaldiko egoerara itzuliko gara ikasle eta langileak: ez dugu kutsadura akustikoaren aurkako gutxieneko babesik izango.

Foru Aldunditik jakinarazi digute C-II proiektuaren trazaduraren arabera jarriko direla pantaila hauek, egungo N-I errepidearen trazadura kontuan hartu gabe.

Hogei urte baino gehiago daramatzagu kutsadura akustikoa apalduko duten soluzioak eskatzen eta ez gaude pantaila akustikoen aurka. Pantaila akustikoak behin behineko soluzioa direla iruditzen zaigu: legeak adierazten duen gehiegizko dezibelio kopurua gainditzen jarraituko duelako eta ez delako arnasten dugun kutsadura maila jaitsiko.

Ikastolaren interesen defentsa egiteaz gain, Andoaingo etorkizunaren eta ongizatearen aldeko ekimenekin bat egiten dugu. Beraz, pantaila akustiko hauek behin behineko neurri izatea eskatzen dugu eta egungo N-I errepidearen trazaduraren arabera jar daitezela.

Era berean, Andoaingo zein Gipuzkoako ordezkari politikoei eskatzen diegu N-I errepidearen arazoari soluzio duin bat eman diezaiotela, andoaindarren nahia kontuan hartuz eta herriaren etorkizunaren alde lan eginez.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ORAIN GIPUZKOA

KOMUNITATEA

ANDOAINDARRA EUSKARAZ

'Parketarrak' bueltan da!

Andoaingo Udalak, iaz bezala, kalean eta parkeetan euskararen erabilera handitzea helburu duen "Parketarrak" egitasmoa jarriko du abian aurten ere.

Hezten enpresako jolas dinamizatzaileen laguntzaz, honako egun eta lekuotan gauzatuko dira saioak:

- Zumea plazan: maiatzak 10, 17, 24 eta 31 (asteazkenetan).
- Goikoplazan: maiatzak 16, 23 eta 30, (astearteetan).

Umeen adinaren arabera, Zabu Zibu eta Txirrintxon programak garatuko dira egun bakoitzean:

- Zabu Zibu: 17:15-18:15era; 3 eta 5 urte bitarteko haurrak dituzten familientzat. Helburua euskaraz jolastu ahal izateko tresnak eskaintzea da, beraz, behar beharrezkoa da haurrak guraso edo helduren batekin etortzea eta jolastea.
- Txirrintxon: 18:15-19:15era; 6 eta 9 urte bitarteko haurrentzat.

Aurretik ez da izena eman behar, nahikoa da bertaratzea.

Anima zaitezte! Bertan egongo gara zuen zain!

POSTONTZIA

CII-AK KALTETUTAKOEN PLATAFORMA ANDOAIN

Auzo batzarrak datorren astean

Astelehen honetan egindako bileraren ondoren, CII proiektuak kaltetutakoen Plataformak, auzoetako batzarrak egitea erabaki du. Bileren helburua auzokide guztiei azken hilabeteetan egindako kudeaketak eta lortutako emaitzak azaltzea da, baita esku artean ditugun zereginen berri ematea, eta guztion artean etorkizunean landu beharreko helburuak eta konpromisoak azaltzea. Honako hauek dira batzarrak egiteko egunak eta lekuak:

- Asteazkena, maiatzak 17. 19:30. Santa Krutzeko espigoian, bizilagun hauei zuzenduta: Ondarreta kalea, Eskolak kalea, Kaleberria, Juan Bautista Erro, Kale Nagusia, Zumea y inguruko plazak.
- Osteguna, maiatzak 18. 19:30. Mimendi kaleko igogailuaren plazatxoan, bizilagun hauei zuzenduta: Mimendi kalea, Alejandro Calonge, Rikardo Arregi, Dr Huizi, Agustin Leitza, Gernika kalea, Belkoain kalea eta Bazkardo Plaza.
- Ostirala, maiatzak 19. 19:30. Etxebarrieta Plazan, bizilagun hauei zuzenduta: Aiztondo kalea, Karrika, Sorabilla, Larramendi, Martín Ugalde, Miranda eta inguruko plazak.

Plataformak eskaera asko jaso ditu azken asteotan informazio-ekitaldiak eta herritarren partaidetzako ekitaldiak egiteko. Beraz, bertaratutakoek lehen eskutik jasoko dute kezkatzen gaituen gaiari buruzko informazioa.

Bestalde, zenbait alderdik erantzun diote plataformak bere hauteskunde-programatan 2022ko irailaren 12ko eta 2023ko otsailaren 20ko osoko bilkuretan hartutako erabakiak betetzeko eta betearazteko konpromisoak jasotzeko egindako eskaerari. Baita ere kontsulta-lotesle bat antolatzeko, Andoaingo herritar guztiek horri buruzko iritzia eman dezaten. Alderdiek errekerimenduaren erantzuna bidaltzeko azken eguna maiatzaren 12a, ostirala, izango da.

Behin epeak gaindituta, Plataformak alderdi guztiek bidalitako erantzunen berri emango die Andoaingo herritar guztiei, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, eta maiatzaren 28an Andoaingo eta bertako herritarren interesak benetan defendatzen dituzten ordezkariei atxikimendua adierazteko behar duten informazioa izan dezaten.

www.aiurri.eus

AIURRI BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

ITALIAKO GIROA
Andoni Urbistondoren eskutik

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 11

ANDOAIN Erakusketa
Euskaldunaren mendeurreneko erakusketaren irekiera ekitaldia. Maiatzaren 20ra arte zabalik.
18:30, Bastero, erakusketa aretoa.

ANDOAIN Deialdia
2022-2023 ikasturtean euskara ikasteko dirulaguntza deialdia. Informazio osoa: andoaindarraeuskaraz.eus.
Azken eguna: Ekainak 16.

ANDOAIN Dokumentala
Elbira Zipitria hezitzaile eta euskaltzalearen dokumentala.
20:00, Bastero.

OSTIRALA 12

ANDOAIN Kontzertua
"A Capella", Demode Quartet.
20:00, Bastero.

LARUNBATA 13

ANDOAIN Ospakizuna
Euskaldunaren mendeurrena.
12:00, Bastero. Dokumentala.
12:30, Ubitarte. Partida.
14:00, Aita Larramendi. Bazkaria.

ASTELEHENA 15

URNIETA San Isidro
San Isidro egunean ospakizuna Elizan eta Lekaion.
11:00, Meza eta hamaiketakoa.

Gure Zirkua, Etxeberrietan. AIURRI

ANDOAIN Gure Zirkua, azken asteburua Etxeberrietako zelaietan

Aurreko asteburuan ehunka zaleturen arreta bereganatu ostean, bigarren eta azken asteburua egingo dute Andoainen. Azken sarrerak salgai gurezirkua.eus webgunean.
Maiatzak 12-14. Hainbat saio. Etxeberrieta auzoa, Andoain.

ANDOAIN Hitzaldia
Bide sinodalean aurrera eginez, Hurkoa fundazioko Pozo jaunak hitzaldia eskainiko du. Fundazioak, bakarrik eta beharrean dauden adineko pertsonei laguntza ematen die.
19:00, San Martin elizako lokala.

OSTEGUNA 18

URNIETA Filma
"Temblores" filma. Homosexualitatea ardatz duena.
19:00, Sarobe.

ANDOAIN Aurkezpena
"Amaiur! Libera State" liburu-ilustratuaren aurkezpena.
19:00, Santa Krutz elkartea.

OSTIRALA 19

ANDOAIN Bisitaldia
Gotzaiaren bisitaldia Santa Krutz elizara. Ekitaldia irekia da.
19:00, Santa Krutz eliza.

URNIETA Antzerkia
"Sex sua", Andoni Mutiloa.
19:00, Sarobe. Euskaraz.

ZINEMA

ANDOAIN

BASTERO

La quietud de la tormenta*
Ig., 14. 19:30.
Astl, 15. 19:30, 22:00.
*2 euroko deskontua leihatilan.

Mavka, guardiana del bosque
Ig., 14. 17:00.

Fatum
Lar, 20. 19:30, 22:00.
Ig., 21. 19:30.
Astl, 22. 19:30, 22:00.



SINOPSIA

La quietud en la tormenta
Zuzendaria, gidoia: Alberto Gastesi. **Aktoreak:** Loreto Mauleón, Iñigo Gastesi, Aitor Beltrán, Vera Milán. **Herrialdea:** EH (2022). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 97 min.

Donostian, Paristik itzuli ostean

Lara Paristik itzuli da Telmo bikotekidearekin, Donostian behin betiko bizitzen jartzera. Daniel ez da inoiz hiritik irten; orain bere neskalagunarekin bizi da, Verarekin, eta amaren etxebizitza-agentzian egiten du lan.

Lara eta Danielen bizitzak gurutzatzen dira salgai dagoen etxebizitza horren bisitan, baina agian hau ez da elkar topo egin duten lehen aldia. Iraganaren eta orainaren artean, bi pertsonaren maitasun-istorioa arakatzen du.



Emakumeen etxea, Andoaingo emakume feministen eskaera

Aurreko ostiralean bilkura egin zuten Goikoplazan, agintaldi berriko ordezkariei eskaera bideratzeko

Erredakzioa ANDOAIN

Mezua zuzena eta argia da: "Laster udal hauteskundeak izango dira eta udal ordezkaritza lortzen duten alderdiek berdintasunerako neurriak egiteko eta aplikatzeko ardura dute. Hauteskunde-programetan Emakumeen Etxea* sortzea egongo da, eta hori txalotu egiten dugu. Hala ere, Andoaingo emakume* feministak eskatzen dugu ez daitezela geratu elektoralismo hutsean. Gaur egun, Andoainek ez du espazio hori, ezta hori definitzen duen proiekturik ere. Emakumeen Etxeak emakume libreen, arrazakeriaren aurkakoen, pluralen, feministen, laikoen eta aktiboen lekua izan behar du bertan".

Besteak beste, berdintasuna sustatzeko bizitzako esparru guztietan, gogoeta egiteko, pentsamendu kritikoa eta ahalduntzea bultzatzeko, Aliantzak eta sinergiak sortzea, kolektiboki borrokatzeko topagune izateko. Eskaera zehatzak luzatu dituzte.

Belaunaldi ezberdinetako emakumeen topaleku izan zen ekimena. AIURRI

Asisko Urmeneta. AIURRI

Atzera jauzia, Amaiurko gazteluari begira

"Amaiur! Libera State" nobela grafikoa aurkeztuko du Asisko Urmenetak, maiatzaren 18an Andoainen

Alba Cabrera Jauregi ANDOAIN

"Amaiur! Libera State" nobela grafikoa aurkeztuko du Urmenetak, maiatzaren 18an, Peña Santa Krutz elkartean, Amaiurko guduaren bost mendeko urteurrenean.

Amaiurko Gaztelu elkartearen eskakizunez, denbora-lerroan, atzera egiteko ariketa proposatzen du sortzaileak bere azken obran. Amaiurko gazteluan kokatzen du kontakizuna, bertan izandako gudutik, hain justu ere, bost mende igaro direnean.

Komiki formatuan aurkeztu du Euskal Herriko historian mugarri izan zen gertakizuna. Horretarako, dokumentazio historikoa nahiz grafikoa pilatu du, baita bildutako informazio hori guztia aletu ere, era garbian eta ulerkorrean, irakurlearen esku uzteko. Modu horretan, Amaiurko gazteluaren setioaren kronologian eta horren aurrean egindako erresistentzia "epikoan" ipini du begirada sortzaile nafarrak, 1512urtetik 1522urtera bitartean. Hariari tira eginda, besteak beste, Jakue Belatz Medrano, Maria Hozta, Johanes Arremiritz Bakedao eta Johanikot Arberoaren adierazpenak biltzen ditu istorioak.

Historia irudi bidez erretratatzea du gustuko Urmenetak; iraganeko kontakizunak jorratzen ditu bere binetetan nahiz ilustrazaioetan, betiere mezu politiko batekin, zer hausnartua emateko: "Dokumentazio ugari aztertu eta destilatu egin dugu, eta, orain, herriari eskaini, baliagarri izanen zaiolakoan bost mende bete diren honetan. Amaiur, euskaldunon zoru epikoa".

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak antolatu du ekitaldia, Aiurriren laguntzarekin. Sarrera doakoa da.

"Sex sua" musikalaren bi emanaldi Sarobe antzokian

Andoni Mutiloa sortzailearen eskutik, datorren maiatzaren 19an Urnietan

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Iazko udan, "Esnatu naiz" kabaretarekin izan ostean, Sarobeko oholtzara igoko da berriro ere Andoni Mutiloa sortzailea hilaren 19an, berriki ondu duen obra taularatzera: "Sex sua". Musikal formatuan, jende askoren egunerokoa zeharkatzen duten gaiei buruz jardungo da jendaurrean, ikus-entzuleei zer pentsatua ematea baitu xede obrak. Ligatzeko aplikazioak, komunikazio-kode berriak eta horiek pertsonen arteko hartuemanetan izandako eraginak ditu abiapuntu obrak. Bestalde, auto-irudia, jendarteko edertasun kanonak eta besteentzat desiragarri izateko beharra ere hizpide dira emanaldian, genero eta sexu-joera ezberdinen aldeko mezua zabaltzeaz gain.

Antzerkia, dantza eta musika nahasten ditu "Sex Sua" obrak. Hiruki genero zehatzik gabeko pertsonaiaren azalean kokatuko da Mutiloa, "berarekin batera, ilusio faltsuen bidean barneratuko gara, umorez eta dramaz betetako bidaia egiteko". Bukaeran, Imanolekin egingo du topo publikoak eta emandaldi guztian mahaigaineratutako aferen gaineko hausnarketa egiteko parada izango du ikus-entzuleak.

Ikasleen aurrean, estreinakoz

Maiatzaren 19an, ostiralarekin, emanaldi bikoitza egingo du Mutiloak Sarobe arte eszenikoen gunean. Alde batetik —estreinakoz, gainera—, ikasleen aurrean antzetuko du obra, hain justu ere, DHB nahiz Oinarrizko Lanbide Heziketakoentzat ariko da oholtzan. Beste alde batetik, herritar guztiei zuzendutako emanaldia egingo du 19:00etan. Sarrera doan da eta

Urnietako udala

ZORION-AGURRAK

URNIETA
Malen
Zorionak, Malentxu! Gazta laurdena betezu ta geyore izan dattezela elkarrekin! Hementxe gattuzu herrin, zu noiz etorriko zain, belarritatik tira iteko prest! Muxu haundi bat Korroxkaluen partez Mallorkako palmeren artea!

ANDOAIN
Naroa Irazu Roman
Naroak maiatzaren 12an 14 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handiak etxeko guztien partetik.

Zorion agurrak Aiurrin

- www.aiurri.eus.
- diseinua@aiurri.eus.
- Arantzibia 4-5, behea.
- 619 163 537 (whatsapp bidez).

ODOL-EMAILEAK

HURRENGO HITZORDUAK

Maiatzak 22, astelehena.
16:30-20:30. URNIETA, Gaztelekuan.
Hitzordua hartzeko: 943 007 884.

#ANDOAIN #UDALHAUTESKUNDEAK23

JENDAURREKO ELKARRIZKETAK

Bastero Kulturgunean, ordezkaritza duten 4 hautagaiekin

MAIATZAK 16, ASTEARTEA

19:00

Andoni
Alvarez Lete

EH Bildu

20:00

Pepe
Iparragirre

Podemos

MAIATZAK 19, OSTIRALA

19:00

Maider
Lainez

PSE-EE

20:00

Imanol
Goenaga

EAJ-PNV

Ekitaldi irekia, herritar guztiei zabalik,
Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan

WWW.AIURRI-EUS: ELKARRIZKETAK IKUSGAI MAIATZAREN 22TIK AURRERA

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA